

2023KO AZAROAREN 20KO ALKATEAREN 517. EBAZPENA, OILARTEGI SLU ENPRESAREN LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO ONARTU ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA ONESTEN DUENA, ETA DEIALDIAREN EZAUGARRIEN TAULAN ZEHAZTEN DEN ETA UDALAREN ATARIAN EGONEN DEN WEB FITXAN ARGITARATZEKO AGINDUA EMATEN DUENA.18370P ESPEDIENTEA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako alkatearen abenduaren 14ko 579/2022 Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

579/2022 ebazpenaren 6. puntuaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko da, eta deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da. Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta argitaratuko da deialdiaren web fitxan, toki erakundearen atarian.

Halaber, 6.2. oinarriak hauxe dio: Behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun baliouduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko. Erreklamazioak toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxaren bidez aurkeztuko dira.

6.3. oinarriak hauxe dio: Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta deialdiaren web fitxan argitaratuko da.

Behin behineko zerrenda onartu zen 2023ko uztailaren 27ko 332. ebazpenaren bidez eta Udaleko web orrian argitaratu zen.

Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik ez dagoenez,

Kontuan hartuz bakarrik Oihana Huartemendia Elzaurdia andreak zuzendu duela eskaera.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.)Oilartegi S.L.U. enpresaren lan postuak onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

ONARTUAK:

-GERENTE LANPOSTUA:

1. ***1145**

-INSTALAZIOAREN MANTENIMENDUA ETA GARBIKETA LANAK:

1. ***7250**

-MONITOREA-% 89,33KO LANALDIA:

1. ***5858**

-MONITOREA-% 53,33KO LANALDIA :

1. ***8310**

-MONITOREA-% 29,33KO LANALDIA :

1. ***5837**

-SOROSLEA-% 93,33KO LANALDIA:

1. ***8030**
2. ***6344**

-SOROSLEA-% 42,66KO LANALDIA:

1. ***8030**

-JENDEARENTZAT ARRETARAKO LANGILEA, LANALDI OSOAN:

1. ***0953**
2. ***3258**
3. ***7750**

-JENDEARENTZAT ARRETARAKO LANGILEA, % 53,33 LANALDIA:

1. ***0953**
2. ***7750**

-JENDEARENTZAT ARRETA ETA GARBIKETA LANAK, % 86,67KO LANALDIA:

1. ***6590**
2. ***7750**

-BAZTERTUAK:

-MONITOREAK:

1. ***4415**
2. ***8194**

-SOROSLEAK:

1. ***4415**

2.)Ebazpen hau deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta udalaren atarian egonen den web fitxan argitaratzeko agindua ematea.

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

A. Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).

B. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa:

- Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.

- Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

C. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa).

Lesaka, 2023ko azaroaren 20an.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY.

MARIA JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI.